

Lanerako metodo bezala talde-lanarena aukeratu zen. Ikastaroa ez zen hitzaldietan, ezta aurrez prestaturiko txostenetan oinarrituko, partaideen talde-lanean baizik. Dena den, eta ikastaroa hasi aurretik, lexikoaren arloren bat edo beste lantzeko teknikak aztertzekotan gelditu zen zenbait irakasle.

Erabakiok gogoan izanik, abenduaren 26an hasi zen ikastaroa. Glotodidaktika-taldeko alfabetatze sailean diharduten lankideekin eta irakasleekin hamabiko taldea osatu zen. Lehenengo egunean, lexikoaren arloa hain zabala izanik, eta «Helduen alfabetatzerako programazioa» liburua oinarritzat harturik, ikastaroan landu behar ziren atalak aukeratu ziren, talde bakoitzak atal bat landu zezan eta ondoren beste taldekideei eskaini eta adierazi.

Aukeratu ziren atalak hauek izan ziren: eratorpena, sinonimia, modismoak edo esamoldeak eta atsotitzak, eta esaldien arteko loturak. Ondorioz, lau lan-talde osatu ziren. Taldeok aukeratutako atalak lantzeko teknikak eta ariketak sortzen eman zituzten ikastaroko hurrengo egunak.

Azkenengo egunean, talde bakoitzak sortutako ariketak adierazi eta eskaini zizkien beste taldeei.

Baina lana ez da hemen amaitzen. Irakasle bakoitzak, euskaltegietan experimentatu ondoren, bere iritzia eman beharko du sortu den materialari buruz eta, hurrengo ikastaro batetan, hasitako lana birplanteatzen eta osatzen saiatu.

Eginiko ikastaroak, hein batetan, alfabetatzeko programazioa garatzeko eta gauzatzeko balio izan du. Hasiera besterik ez da izan, baina horrela egiten da bidea.

Gurutx Larrañaga

Soziolinguistika egunak

(Eibar, Donostia: 1984eko urtarrilak 2-12)

Zorroagako Hezkuntz Fakultatea eta Eibarko Udaleko Euskara-Zerbitzua asmo berean eta fetxa beretsuan gertaturik, ekintza bateratzea erabaki zuten bi instituzioek. Eta horrela eskuz esku ari izan dira Eibar eta Donostia «Soziolinguistika Eguna» delako hauek antolatzen. Normalean bai Nafarroa eta bai Iparraldea gertakari hauetatik at gelditu ohi direla-ta, Baionara eta Iruñera eraman ziren hizlariak; hangoek ere nolabait ekintza honetan parte har zezaten. Errege egunean, beraz, Baionako Institutuan izan zen mahai-ingurua; eta biharamunean, urtarrilaren 7an, Iruñean; Nafarroarako txangoa Leitzen afari on batekin amaitzeko.

Gai nagusia hizkuntzaren normalizazioa izanik, gure egoera edo antzeko zerbait eza-gutu duten herriak hautatu ziren: Suomi (Finlandia), Cymru (Gales), Eire (Irlanda), eta Al Djezair (Aljeria). URSSeko errepublika bat ere hautatu zen: Kartveli (Georgia); baina azkenean ezin etorria adierazi zigun Tbilissi-tik iritsi behar zuen irakasleak.

Hizlariak hauek izan ziren:

- Suomi: Timo Riiho, Helsinki-ko irakasle eta erromanista.
- Eire: Alan Heusaff, Elkarte Zeltikoaren Idazkaria.
- Cymru: Ned Thomas, Aberystwyth-eko irakaslea.
- Al Djezair: Zoohra Genies, Aljer-ko irakaslea eta erromanista.

Azkeneko honen txostena oso interesgarria izan zen, dudarik gabe, baita luzeena ere (45 folio); Z. Genies anderea jaiotzaz berebertarra baita. Honen mintzaira, hortaz, hirugarren mailan dator Aljeria berrian; frantsesaren orpotik arabiera baitator orain. Soziologi egoera, era berean, guretik urrun egonda, han gertatzen diren fenomenoak eta Euskal Herrikoak desberdinak dira maila batzutan.

Zalantzarik gabe, Timo Riiho-k lortu zuen jendearekiko harremanik hurbilena. Euskaraz harritzeko moduan mintzo zelarik (zer asmatuko ote digute orain erderomanoek?), suomieraren garaitzapenaren kondaira azaldu zigun. Suomi-ko kasuak esperantza piztuztuzenez gero, gainera, txalorik ugarienak T. Riiho-k bildu zituen bazter guztietan.

Alan Heusaff-ek, berriz, Eire-ko nazio hizkuntzaren beherakada beldurgarria azaldu zuen. Dublingo gobernuaren hutsegina agertu zuen lotsarik gabe; eta askatasunaren ondoko hogeitatu urtetan gertatu zen goraldia orain erabat suntsitu dela esan zuen. Irlandako erreka-jotze honek zalantza eta kezka utzi zuen gogoan. Baina «egiak bere bidea»...

Ned Thomas-ek, azkenik, Galesko egoera azaldu zuen. Politika mailako aldakuntzei garrantzi oso handia ez emateak harritu zituen entzuleak. Abertzaletasunak han frakaso nabarmen batzuz izan ditu azken urte hauetan; baina N. Thomas-ek oso garrantzi handia ematen zion galesezko telebista-kateari, esate baterako. Thomas britaindarra da; eta Cymru-n sustrai sakonak ditu Saunders Lewis idazleak...

Gure nazio-arazoan hizkuntzaren etorkizuna izan ala ez izan mailakoa izanik, honen kontzientzia azkartzea izan zen antolatzaileen asmo nagusia. Hein batean bederen lortua izan zela uste dugu.

Harreman pertsonalak inportanteak dira. Eta UZEIko puntuzkoa den Andoni Sagarna ondoko asteotan Helsinki-ra joango dela jakitea pozgarria da.

Esandako guztiaren transkribaketa aurrera doa; eta aurki, guk uste, liburu mardul gisa eskainiko zaie euskaldunei.

Txillardegi

Lehen euskarazko argazkinobela, Legazpin.

Euskal Herriko lehen euskal argazkinobela Gipuzkoako Legazpi herrian egin zen, joan den abenduan hain zuzen. Bertako «Hots» izeneko talde euskaltzaleak bultzatu zuen ideia eta ezin esan arrakastarik lortu ez duenik; ederki saldu da eta, azkenik, ez da galerarik izan. Gainera, herri kokkor bateko gauza izanik, kalitate bikaina eskaintzen digu produktu honek.

Argazkinobelak «Edorta eta Aiala bizkiak» du izena. Istorioa Legazpin bertan kokatzen da eta Aialaren heriotzeak Edortari sortzen dizkion arazo psikikoak dira kontakizunaren mamia.

Aitor Arana da gidoigilea. Gidoia egiteko bere ipuin batean oinarritu zen. Hauxe da legazpiar gazte honen lehen plazaratzea. Eginak ditu umeentzako ipuin-liburu batzuz ere. Argitaletxe bila ibili da, baina oraingoz ez diote ezer publikatu.

Arana izan da argazkinobelaren bultzatzaile nagusia. Gazte honen kasua aski interesgarria da, erabat autodidakta bait dugu. Batxilerra baino ez du egin; iaz euskarazko klaseak eman zituen AEK eta HABEn eta orain, soldaduskari uko egin dionez, Madrilgo Gobernuko ateraberrira duen legea noiz eta nola aplikatuko zain dago.

Argazkinobela aurrera ateratzeko gogor saiatu zen herriko «Hots» taldea. Talde horrek hilerro-hilerro izen berdineko aldizkaria kaleratzen du. 1983.eko otsailean sortu zen aldizkari hau eta momentu honetan aski finkatua dagoela esan daiteke. Besteak beste, erreportaiak, elkarriketak, ipuinak eta bertsoak biltzen dira bertan eta, neurri handi batean, herriko gaiak tratatzen dira.

Talde honek prestatua du jadanik 16 orrialdetako beste argazkinobela bat, Aitor Aranaren gidoiarekin hau ere, beharbada aurki «Hots» aldizkariarekin batera banatuko dena. Eta horrez gain, aurtan beste argazkinobela luze bat ateratzeko asmoa dago, balio handiko euskal nobelaren batean oinarrituta.